



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

111. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Maiatza



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenarako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Euskadiko EGEF 2014-2020 Programa Operatiboaren Hirugarren Jarraipen Batzordea egin dute

Maiatzaren 20an egin zuten Bilbon Euskadiko EGEF 2014-2020 Programa Operatiboaren Hirugarren Jarraipen Batzordea.

Bileran Europako Batzordeko, Ministerioko eta Programa Operatiboko partaide diren erakundeetako (horien artean, Eusko Jaurlaritza eta hiru foru-aldundiak daude) ordezkariak hartu zuten parte.

Topaketan landutako gaien artean, 2014-2015eko exekuzioko urteko txostena, Programa Operatiboaren egoera, Komunikazio Estrategia, Lanak Hautatzeko Irizpideak eta Prozedurak, Programaren Ebaluazio Planaren aurkezpena eta Finantza Tresnak abian jartzea nabarmendu behar dira.

Ogasun eta Administrazio Publikoaren Ministerioaren EGEFen Kudeaketako Zuzendariorde Orokorrak baieztatu egin du Europako Batzordeak Programaren Kudeaketarako Agintaritza gisa izendatu duela.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-19239/eu/contenidos/informacion/politica_regional/eu_2340/portada_polregi.html



> **Gipuzkoako Foru Aldundiak orain arte EGEF Programa Operatiboa Gipuzkoan abian jartzeko emandako urratsak ezagutarazi ditu**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzaren bidez, Euskadiko EGEF 2014-2020 Programa Operatiboaren Hirugarren Jarraipen Batzordean hartu du parte. Topaketa maiatzaren 20an egin zuten Bilbon.

Eskainitako hitzaldian, Foru Aldundiko arduradunek Gipuzkoan EGEF Programa Operatiboa abian jartzeko orain arte garatu dituzten lanak azaldu zituzten.

Horrekin lotuta, Lurraldean Euskadiko EGEF 2014-2020 Programa Operatiboaren tarteko erakunde gisa Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza izendatzeko aurreikuspena dutela aipatu dute. Testuinguru horren baitan, Aldundiak Jarraipen Batzordeari jakinarazi dio EGEFen Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusiari bidali dizkiola funtzioen eta prozeduren deskribapena eta Programa Operatiboaren Kudeaketako eta Kontroleko Prozeduren Eskuliburua.

Bestalde, programazio-aldiaren hasieratik, Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzak lurraldean baterako finantzaketako lanak egin ditzaketen erakunde kudeatzaile potentzialekin topaketak egiten ari dela jakinarazi du. Horren guztiaren helburua Programa abian jartzeko emandako urratsen eta Europako baterako finantzaketak eskatuko dituen betebeharrei buruzko informazioa ematea da.

Prozesu horrekin batera, Gipuzkoan EGEF funtsak kudeatzeko informatikako aplikazioa hobetzen ari dira lurraldean Programa Operatiboarekin lotutako datu guztiak modu elektronikoan partekatu ahal izateko.

Informazio gehiago:

http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/eus/pre_not.asp



> **Gipuzkoako Foru Aldundiak Europako estrategia partekatu du udalekin, mankomunitateekin eta garapen-agentziekin**

Gipuzkoako Foru Aldundiak maiatzaren 13an egin du "GIPUZKOA INDARTUZ" izeneko lehen workshopa. Bertan, Gipuzkoako udaletako, mankomunitateetako eta garapen-agentzietako 40 ordezkari bano gehiagok hartu du parte.

Topaketaren helburua Europara irekitzeak duen garrantziaren inguruan Gipuzkoako tokiko erakundeak kontzientziatzea eta dauden aukera bikainen (proiektuak finantzatzeko zein lankidetzaren sareetan parte hartzeko, bereziki intereseko proiektuetan) inguruko informazioa ematea da. Aldundiak, gainera, kanpoko proiektioan, udalen beharrak, lehentasunak eta erronkak gertu-gertutik ezagutu ditu.

Laneko bileraren ondorioek foru-aldundiak dagoeneko udalei eta eskualdeei eskaintzen dien zerbitzua sendotzen saiatzeko Aldundiak abian jarri nahi duen Bulego Birtualaren zerbitzuak eta egitura zehazteko balioko dute. Horrekin lotuta, proiektuetarako Europako baterako finantzaketa bilatzeko edo Europako beste eskualde batzuetako udalerriekin eta eskualdeekin aliantzak finkatzeko garaian aurrean izaten dituzten erronkei eta aukerei buruzko informazioa eta aholkularitza eskainiko dizkie.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Europako esparruan Gipuzkoaren eta haren udal-sarearen presentzia sendotu nahi izateko beste arrazoi bat araudia da. Horrekin lotuta, Europako politikak osatzeko garaian esku hartu nahi du programen edo deialdi jakinen baitako proiektuen bidez.

Informazio gehiago:

<https://www.youtube.com/watch?v=-cXq6Elu-Lw>



> Gipuzkoak eta Euskadik 30 urte Europako Batzordean

Europako Egunaren ospakizuna aprobetxatu du Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko foru Diputatuak, gogorarazteko 2016an 30 urte betetzen dituztela Gipuzkoako eta Euskadik Europar Batasuneko kide gisa. "Modernizazioak, aurrerapenak eta gure gizarteak bizi izan duen aldaketa prozesuak markatu dituzte hiru hamarkada hauek. Mugak deuseztatzeak, adibidez, pertsonen, langileen, merkantzien eta zerbitzuen zirkulazio askatasuna bezalako elementuak ekarri ditu; baina jakitun izan behar dugu ere ahalegin eta sakrifizio handiko urteak izan direla, egoera zailetan indarrak batzea eskatu dutenak".

Ildo horretan, adierazi du oraindik asko gelditzen dela egiteko "pertsonek Europa" eraikitze bidean. "Pertsonak eta giza-eskubideak oinarri edukiko dituen Europa behar dugu, bere balioei eta jatorrizko printzipioei –justizia, elkatasuna eta giza-babesa-, edota sinatu dituen itunei –Lisboakoa, kasu- bizkarraren emango ez diena. Bere historia ahaztuko ez duena. Errefuxiatuen krisia erronka itzela da EB-rentzat eta, tamalez, goi mailako agintarien erantzuna ez da gizarteak, udalek edota eskualdeek eman dutenaren parekoa izan. Europa soziala behar dugu, Europa izango baldin bada".

Lasa Diputatuaren esanetan, herritarrei argi eta garbi azaldu behar zaie zer suposatzen duen EB-ko partaide izatea. "Ez bakarrik ikuspegi tradizional batetik, hau da, Euskadik edota Gipuzkoak materialki eskuratu dutenaren ikuspegitik, edota Europar Funtsei esker abiarazitako azpiegituren ikuspegitik. Azaldu behar da ere Europak izan duen garrantzia gure erakundearen eta gure ekonomia, hezkuntza edo gizarte ehunaren egituratze prozesuan. European parte-hartze aktiboa dugu herri hau egunero eraikitzen dugun persona guztiok, proiektu komuna den aldetik".

"Europako egun honetan –amaitu du-, Gipuzkoako Foru Aldunditik, Europarekiko gure konpromisoa berretsi nahi dugu: konpromiso zintzoa, benetakoa, eta gure Lurralde bere osotasunean hartzen duena. Gipuzkoa Europar Batasunaren barruan eskualde eragile gisa kokatu nahi dugu, hau da, Gipuzkoak Europar Batasuna aintzat hartzea, eta Europar Batasunak Gipuzkoa aintzat hartzea. Ez dago gaurkoa, maiatzaren 9a, baino egun hoberik, europar herritarren eguna, Europako Eguna, gure konpromisoa berretsi eta bide honetan pausoak ematen jarraitzeko".

Informazio gehiago:

http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/2741/diputacion-pone-marcha-una-oficina-virtual-para-asesorar-ayuntamientos-sobre-programas-y-redes-europeas&anti_cache=1464960089375



> “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” gazteentzako argazki-lehiaketaren sariak entregatu dira

Eusko Jaurlaritzak gazteentzako argazki-lehiaketako 5. edizioko sariak entregatu ditu: “Non ikusten duzu Europa Euskadin?”.

Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF 2014-2020) Euskadiko Programa Eragilearen testuinguruan Ogasun eta Finantza Departamentuaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak antolatutako lehiaketa honek Euskadin EGEF Funtsak finantzatutako ekimenak eman nahi ditu ezagutzera. Bestalde, Europa Euskadiko gazteriarengana gerturatu nahi du eta Europak hurbileneko ingurunearen garapenari egindako laguntzan egindako ekarpenari buruzko ikuspegia bildu nahi du.

Epaimahaiak aukeratutako argazki onenaren saria Gasteizko Silvia Artechek jaso du; bigarrena Bilboko Fernanda Fierrok, eta Facebook-en boto gehien jaso duen argazkia Etxeberrko Eva Cemborainena izan da.

Facebook sare sozialaren bidez antolatutako lehiaketak 8.068 jarraitzaile inguru lortu ditu.

Informazio gehiago:

www.facebook.com/feder.ejgv.euskadi.eus



KOHESIO-POLITIKA

> Europako Batzordeak "Europa nire eskualdean" kanpaina kaleratu du

Europako Batzordearen Eskualde eta Hiri Politikarako Zuzendaritza Nagusiak "Europa nire eskualdean" ("Europe In My Region" ingelesez) izeneko kanpaina jarri du abian. Horren helburua Europar Batasunak finantzaturako proiektuak hobeto ezagutu ditzaten europarrak animatzea da.

Kanpaina apirilaren 29tik ekainaren 11ra bitartean egingo dute Batasuneko 23 herrialdeetan eta 1.200 ekitaldi baino gehiago bilduko ditu. Horien artean, hauek nabarmen ditzakegu: Europar Batasuneko proiektuei buruzko ate irekien jardunaldia, altxorraren bila, argazki-lehiaketa eta blogen lehiaketa.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/en/policy/communication/inform-network/map/



> Euskadi Europar Batasuneko herrialdeen artean bosgarren postuan dago genero-berdintasuneko indizearen sailkapenean

Genero-berdintasunaren Europako Indizea (IIG, gaztelaniaz) ongizatean eta garapen pertsonalean eragina duten alderdi esanguratsu batzuekin lotuta oraindik ere gizonezkoen eta emakumezkoen artean dauden desberdintasunak maila dimentsionalean laburbiltzen dituen adierazle sintetikoa da (1 zenbakiak erabateko desberdintasuna esan nahi du, eta 100ek erabateko berdintasuna). Sei dimentsiotan modu hierarkikoan egituraturako 26 adierazle daude eta horiek,aldi berean, 12 azpidimentsiotan banatzen dira. Kalkulua Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren (EIGE) metodologiaren arabera egiten da.

Euskadin, Genero Berdintasunaren Indizea 58,5 puntukoa zen 2012an; hau da, Belgikakoa baino pixka bat handiagoa (herrialdeen sailkapenean, Europar Batasuneko herrialdeen artean bosgarren postuan zegoen), Eustatek prestatutako datuen arabera.

Zehatzago esanda, Euskadi Suediaren, Finlandiaren, Danimarkaren eta Herbeheren atzetik dago, baina Europar Batasuneko gainerako 24 kideen aurretik eta Europako batez bestekoa baino askoz ere aurrerago.

96 punturekin, Osasunaren dimentsioa da genero ezberdineko pertsonen arteko berdintasun osora gehien gerturaten dena. Beste muturrean, hau da, desberdintasun handieneko dimentsioa duenean, azaltzen da Denbora. Adierazle partziala 39 puntukoa da (gehieneko puntu kopurua 100ekoa da).

Informazio gehiago:

http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013400/ti_Genero_Berdintasunaren_Indizean_Euskal_AE_bosgarrenaren_pare_Europar_Batasuneko_estatuen_artean/not0013407_e.html

http://www.revie.euskadi.eus/y92-content/es/contenidos/nota_prensa/not_igualdadeuropeo/es_def/index.shtml



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Euskadik %17,5eko itzulera jaso du HORIZON 2020 programaren lehen bi urteetan

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Europako programen atalak argitaratutako behin-behineko datuen arabera, Espainiako erakundeek 1.100,8 milioi euroko guztizko diru-laguntzak jaso dituzte HORIZON 2020 programaren bidez. Horrek 1.300 milioi euro inguruko inbertsioa ekarriko du I+G+b arloko jarduerak garatu ahal izateko.

Jasotako diru-laguntza dela eta, Espainiak laugarren postua betetzen du behin-behineko EB-28ko herrialdeen sailkapenean. Itzulera % 9,7koa izan da eta sailkapeneko lehen postuetan daude Alemania, Erresuma Batua eta Frantzia. Hori dela eta, emaitzak bikainak direla esan daiteke, VII. Marko Programa osoan lortutakoak (% 8,3 EB-28 kontuan hartuta) zein H2020 osorako ezarritako asmo handiko helburuak gainditu baitituzte.

Autonomia-erkidegoen araberako finantzaketaren lurralde-banaketari dagokionez, lortutako itzulerari dagokionez, Katalunia dago lehen postuan (% 28), eta jarraian Madril (% 24) eta Euskadi (% 17,5) azaltzen dira. Ondoren, autonomia-erkidego hauek azaltzen dira: Valentziako komunitatea (% 8), Andaluzia (% 7), Gaztela eta Leon (% 3), Galizia (% 3), Aragoi (% 3), Nafarroa (% 1,5), Asturias (% 1) eta Kantabria (% 1). Gainerako autonomia-erkidegoetako ehunekoa % 1ekoa baino txikiagoa da.

Informazio gehiago:

https://www.cdti.es/recursos/doc/Programas/Cooperacion_internacional/HORIZONTE%202020/22298_33332016125952.pdf



> Euskadik goi mailako hezkuntzaren tasari eta eskola uzte goiztiarraren tasari dagokionez 2020 Estrategiaren helburuak betetzen ditu

Eurostatek eta Eustatek argitaratu dituzten azken datuen arabera, Euskal AE-ko 30 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren ia erdiak (%48,9) goi mailako ikasketak bukatu ditu, Estatu osoan (%40,9) eta EB-28n (%38,7) erregistratutako datua baino nabarmenki altuagoa eta Europako erreferentziatzko herrialdeetan erregistratu denaren antzekoa.

Bestalde, 18 eta 24 urte bitarteko euskal biztanleriaren eskola uzte goiztiarraren tasa %7,2ko da. Tasa hau EB-28 (%11) eta Estatukoa (%20) baino nabarmenki baxuagoa da eta EBn erregistratutako tasarik baxuenetarikoen artean kokatzen da.

EAEko emaitzak goi mailako ikasketei dagokionez (gutxienez %40a izatea) eta eskola uzte goiztiarraren tasari dagokionez (tasa %10 baino baxuagoa izatea) Europa 2020 estrategiak ezartzen dituen helburuak gainditzen dituzte dagoeneko.

Informazio gehiago:

http://www.ikasmina.net/intranet/uploads/noticias/adjuntos/1098_1_Fitxaestatistikoa42_2016-05-03.pdf



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> INTERREG-SUDOE 2014-2020 Programa. Herritarrentzako laburpena

INTERREG-SUDOE Programaren ezaugarri eta helburu nagusiak azaltzen dituen laburpen-dokumentua da: zer da, lehenetasunak, norik parte har dezake eta norik lortzen ditu garapenaren onurak.

SUDOE guneak Espainiako eskualde guztiak (autonomia-erkidego eta hiri autonomo guztiak, Kanariar uharteak izan ezik), Frantzia (hego-mendebaldeko eskualdeak bakarrik: Poitou-Charentes, Akitania, Midi-Pyrénées, Limousin, Auvergne eta Languedoc-Roussillon), Portugal (Madeira eta Azoreak izan ezik), Gibraltar (Erresuma Batua) eta Andorra biltzen ditu.

Informazio gehiago:

<http://interreg-sudoe.eu/comunicacion/noticias-sudoe/30-el-programa-interreg-sudoe-explicado-de-forma-breve-y-sencilla-lea-el-resumen-ciudadano>

> Erasmus+ programaren gida 2014-2020 tokiko erakundeetarako (Bizkaiko Foru Aldundia)

Tokiko erakundeei Europako hezkuntzako, prestakuntzako eta gazteriarekin lotutako sistemak modernizatzeko Erasmus+ izeneko Europako programaren baitako laguntzak eskatzeko eta proiektuak aurkezteko garaian tokiko erakundeei laguntza emateko gidaliburua eta eskuliburua.

Gidaliburuak Erasmus+ programaren kontzeptu orokorrak azaltzen ditu haren hiru esparru nagusiak zehaztuta: hezkuntza eta prestakuntza, gazteria eta kirola.

Gidaliburuarekin batera, gainera, eskuliburu praktiko bat azaltzen da. Bertan daude jasota eskuragarri izango diren hurrengo deialdiak, epeak eta proiektu bat eskatzeko prozesua. Gainera, proiektua idazteko gomendioak, adibideak eta esteka erabilgarriak ere ikus daitezke.

Informazio gehiago:

http://www.bizkaia.eus/home2/Bizkaimedia/Contenido_Noticia.asp?Not_Codigo=16332&Idioma=CA



> Europa Gipuzkoatik sendotzea (Imanol Lasak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza eta Komunikazio arloko foru-diputatuak)

Imanol Lasak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru-diputatuak, idatzitako iritzi-artikulua

2016ko maiatzaren 9an ospatutako Europako Eguna oinarri hartuta 'El Diario Vasco' egunkarian argitaratutako artikuluan, Lasak agerian utzi du mundua eta, zehatzago esanda, Europa aldarazi zuten ondasun eta ideien trukean Gipuzkoak bete duen posizio eta irekitasunaren aldeko bokazio esanguratsua.

Dena den, Euskadi eta Gipuzkoa EBko kide direla 30 urte bete direnean, Gobernantzako eta Komunikazioko foru-diputatuak gogorarazi du integrazio-prozesuan oraindik ere bide luzea dugula aurrean. Egoera hori aldarazteko, Lasak aipatu du Aldundiak hainbat ekimen jarri duela abian. Horietako bat da, adibidez, Gipuzkoa Indartuz estrategia, Bulego Birtuala. Horren helburua udalei aholkularitza ematea da Europar Batasunak eskaintzen dituen aukeren edo europartze-estrategia izateko behararen inguruan. Bulego horrek koordinatuko ditu lurraldeko kanpoko proiektio eta ekintza guztiak, eta zentzu eta koherentzia politikoa ematen saiatuko da.

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/-/fortalecer-europa-desde-gipuzkoa>



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **Europa Lotzea mekanismoa. Telekomunikazioak: Identifikazio eta sinadura elektronikoak (CEF-TC-2016-1) (+ info)**
- **Europa Lotzea mekanismoa. Telekomunikazioak: Entrega elektronikoa (CEF-TC-2016-1) (+ info)**
- **Europa Lotzea mekanismoa. Datu publiko irekiak (CEF-TC-2016-1) (+ info)**
- **HORIZON2020. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (H2020-ICT-2016-2017) (+ info)**
- **HORIZON2020. Karbono gutxiko energia lehiakorra (H2020-LCE-2016-2017) (+ info)**
- **EaSI- EURES. Mugaz gaindiko elkarteak eta EB baitako mugikortasun arloko lankidetzari laguntza ematea (VP/2016/005. EaSI- EURES 2016) (+ info)**
- **LIFE+ 2016 Programa. Ingurumeneko Azpiprograma eta Klimaren Aldeko Ekintza Azpiprograma (+ info)**